

bizirik! bizirik! bizirik! bizirik! bizirik! bizirik!



edertasuna

historia

tradizioa

oparotasuna

bizia

natura

abizaldia

goxotasuna

ingurune lasaia

berrikuntza

komunikazioa

teknologia

garbitasuna

kalitatezko bizitza

garraioa

sendotasuna

osasungarria

famillia giroa

kirolzaletasuna

modernitatea

integrazioa

kalitatezko heziketa

elkartasuna

eskola txikiak herri txikiak auzo txikiak eskola



Herri txikiak bizirik! Herri txikiak bizirik! Herri txikiak bizirik! Herri txikiak bizirik!

ZER DIRA? NON DAUDE?

Herri txikietan (landa eremuak) dauden eskolak dira. Herriko ume guztiak bertan eskolarizatuta daude eta adin ezberdinetako taldeetan biltzen dira. Hau da, eskolan 6 unitate (gela) baino gutxiago daudela Haur eta Lehen Hezkuntza oso emateko. Gipuzkoan, egoera honetan, koordinakundeko partaide, 26 eskola daude:

1. Abaltzikheta
2. Aduna
3. Aginaga
4. Aizarna
5. Aizarnazabal
6. Albiztur
7. Alkiza
8. Altzo
9. Andatza
10. Angiozar
11. Arroa
12. Berrobi
13. Bidegoian
14. Elgeta
15. Erenotzu
16. Errezil
17. Gabiria
18. Igeldo
19. Ikaztegieta
20. Itsasondo
21. Lizartza
22. Oikia
23. Olaberria
24. Zerain
25. Zizurkil
26. Zubieta



ESKOLA TXIKIEN SAREA

www.eskolatxikiak.org

Gipuzkoako eskola txikien sarea 1987 urtean abiatu zen. Irakasle talde batek, eskola txikien balioaz jabeturik, elkartu eta lanari ekin zion kalitatezko hezkuntza ziurtatu nahian.

1993 urtean, 11 herrietako guraso elkarteek Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinakundea sortu zuten honako helburu hauekin:

- Eskola publiko euskalduna herrietan mantendu.
- Herriaren nortasunean eta kulturaren oinarritutako heziketa bultzatu.
- Herri txikietako eskolen beharrak azaldu eta eskakizunak bideratu.
- Herri txikien arteko harremanak bultzatu eskolaz kanpoko jardueretan oinarrituz.

Helburu hauekin identifikatzearekin batera, urtez urte beste herrietako guraso elkarteak koordinakundearen sartzen joan dira, gaur egungo 26ak osatu arte.

ESKOLA TXIKIETAKO FESTA

1988 urtean "Eskola Txikiak bizirik" lelopean ospatu zen lehenengo festa Bidegoianen. Urtero, ekainaren bigarren igandean, Gipuzkoako herri txiki batean gogoratzen dugu herriak eta eskolak elkarren beharra dutela bizirauteko "Eskola Txikiak bizirik herri txikiak bizirik".



alaitasuna dibertsioa

elkarren beharra harremanak sendotuz

gurasoak parte hartuz

ESKOLA TXIKIEN KALITATEA

Eskola Txikia gaur eguneko eskola da, modernoa. Eskolabakoitza komunitate txiki bat da non ikasle bakoitzak bere ikasketen protagonista izanik besteekin ikasten duen, batzuetan berak baino gehiago dakienekin eta besteetan gutxiago dakienekin.

Eskolarik hoberena herrian dagoena. Eskola herrian bertan izateak umeen hezkuntzan eta herriko bizitzan eragina du. Herri baten altzorra bertan bizi diren pertsonak dira, eta horien artean oso garrantzitsuak umeak. Izan ere, jakinduriaren, hezkuntzaren eta elkarbizitza zoriontsu baten lehen urratsak haurtzaroan eraiki behar dira. Gure haurrak gure herrian nahi ditugu, gure giroan eta gure hezkuntzan haziz eta heziz, gure herrikoak izateaz harro senti daitezten.

Pertsonen arteko harremanak bultzatzen dituzten agenteen artean eskola erakunde garrantzitsu bat da, bai umeen artean, baita helduen artean ere. Herri txikietan, hain zaila egin ohi den integrazio horretan eskolak, bidea erraztuz, lan garrantzitsu bat egiten du.



zerbitzu guztiak

integrazioa erraztuz

herriaren kultura

GURASOEN PARTAIDETZA

gurasoak@eskolatxikiak.org

ezinbestekoa da eskolako proiektua aurrera egin dezan, bide batez, herrian dinamika interesgarriak bideratzeko aukerak sortuko dira. Batetik Guraso Elkarteak duen indarra eta ardura orduz kanpoko jarduerak antolatzen, guraso-eskolak bideratzen, Udalarekin harremanak sendotzen. Bestetik, Eskola Batzordean, hezkuntza-proiektuan parte hartuz.

eskola txikiak herri txikiak guraso txikiak eskola

